

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILU**tik**

2007ko abendua

Gorria,

beltza, baxoerdia, urtekoa, txikitoa, berezia, aparduna, eskilarapekoa, naparra... zenbat izen gauza berdina adierazteko: ardoa. Euskal Kulturarekin harreman estua gordetzen du ardoak. Begira bestela txikiteroei, edo gure otorduei. Gutxitan faltako da ardo botila bazkaltzeko edo afaltzeko orduan. Osasungarria omen da gainera. Baina erreparatu al diogu mahai gaineko botila horri? Guk ardoa deitu diogu bai, baina irakur al dezakegu hitz hori botilako etiketa anitzetan? Kontseiluak Euskal Herrian ekoizten eta saltzen diren ardo etiketen azterketa egin du oraingoan eta hona hemen atzemandakoa. Ardoa mahai gainean jarri eta has dadila ardo-dastatzea!

**Ardoen
azterketa**



Kontseiluaren 10. urteurrena


Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak 10 urte beteko ditu abenduan. Urteurrena ospatzeko ekitaldi soziala antolatu du abenduaren 19an Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan, sorreratik gaur egunera arte emandako pausoak gogoratuko ditu. Bidelagun izan dituen pertsonak eta erakundeekin egingo du ospaketa.



Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseilua
Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain
Tel: 943591200 Fax: 943593051 kontseilua@kontseilua.org



Ardoa dastatzerik nahi?



Euskal Herriko 12 ardo desberdin dastatzeko aukera aurkezten dizuegu azterketa honetan. Kontseiluaren aburuz, gozoena Nafarroa Behereko Irouleguyren 'Domaine de Mignaberry'. Segidan, Aroaren 'Deierri 2004'. Oro har, zapore gazi-gozoa geratu zaigu ahoan. Ardoa izan ohi da gure mahaietan, baina euskara ez da ageri botilen etiketetan.



Kontseiluak hiru **izendapen** desberdinetako, **Errioxa**-www.rioxawine.com-, **Nafarroa**-www.vinonavarra.com-eta **Irulegi** izendapenak hain zuzen ere, 12 produktu izan ditu aztergai. Izendapenen inguruan azaldu beharra dago, Hegoaldeko biek, Errioxa eta Nafarroa alegia, euren berezko etiketa, gaztelania hutsean, dutela eta ardo ekoizleek ezin dutela etiketa hau moldatu. Dena dela, etiketa honetaz gain, ekoizleak bere etiketa propioa jartzen diote ardo botilari. Iparraldearen kasuan, ordea, Irulegi izendapenak ardo ekoizleen esku uzten du izendapenaren informazioa emateko era.

Hau guztia, izendapenei dagokienek, baina eta ardo ekoizleak? Nola aukeratu dira aztertutako **ardandegiak**? **Hegoaldearen** kasuan, **Camps**a gidaren esku utzi da erabakia. Horrela, gida honek aipagarritzat jotako upeltegiak hautatu dira. **Iparraldean** berriz, bertako izendapen famatuena lantzen duten ardandegi **esanguratsuenak**. Kasu guztietan Euskal Herrian erositako produktuak izan dira eta bertan ekoizitakoak.



Hau izan zen Kontseiluak azterketa hasterakoan egindako sailkapena, baina lehen emaitzak jasotzearekin bat, **lagina handitu** behar izan du. Izan ere, aukeratutako produktu guztietatik, bakarrak, jasotzen zuen euskara bere etiketan: **Nafarroa Behereko Irulegi izendapeneko 'Domaine de Mignaberry'**

hain zuzen ere. **Euskararen presentziari dagokionez, ardo honen etiketa da hoberena.** Euskara guztiz era orekatuan ez agertu arren, nabarmena da bere presentzia.

Deigarria da oraingo azterketa honetan **emaitzarik onena Iparraldean** jaso dela. Oro har, eremu honetan frantses hutsean etiketatzen dituzte produktu gehienak, baita ardoa ere (Iparraldean aztertutako beste hiru upeltegiak egiten duten bezala), baina 'Domaine de Mignaberry' salbuespen gozua izan da euskararentzat. Salbuespen gazi gozua dena dela. Izan ere, euskara bai, baina desorekatuak agertzen da ardo botila honen etiketan. Ardo honek sulfitoak, aparra, dituela esaterako, frantsesez eta ingelesez soilik azaltzen da. Aztertutako beste ardo ia guztien etiketetan bezala. Zergatik? Euskaldunoi ez al zaigu sulfitoen berri eman behar?

Emaitzarik onena Iparraldean jaso da: Irouleguyren 'Domaine de Mignaberry'

Aipagarria da gainera, Artaldi taldekoa den **Artazu** ardandegiak esaterako, **9 hizkuntza** erabiltzen dituela sulfitoak daudela adierazteko, **baina euskara ez** da ageri horien artean. **Irache** ardandegiak ere lau hizkuntza erabiltzen ditu zeregin bererako, euskara ere ez da bigarren multzo honetan sartzen.

Ondorioz, Euskal Herrian ekoiztutako produktu batek eta bertako saltoki batean erositakoak, hurrengo mezuak erakusten dizkie euskaldunei: Contains Sulphites. Edo Innehåller Sulfit. Edo beste hau: Bevat Sulfiete. Noizko 'sulfitoak ditu' bat? Badago bat, hots, ardo bakarrak ematen du sulfitoen berri euskaraz: **Nafarroako Aroa ardo eko-logikoak**. Ardo hau ez da Campsa gidan agertzen, baina bertan azaltzen direnak euskarari ematen





dioten lekua, leku eza zehatzago, ikusita, azterketara gehitu dute Kontseiluko ordezkariak. Hala ere, Aroaren etiketan ere, gaztelania nagusitzen da, baina behintzat **euskarak ere bere lekua du**, oraindik txikia bada ere. Kezkagarria da aztertutako gainerako ardo botiletako etiketetan euskararen presentziarik ez dagoela.

**Etiketen mezuak: Contains Sulphites,
Innehåller Sulfiter, Bevat Sulfiter.
Noizko 'sulfitoak ditu' bezalako mezu bat?**

Product of Spain. Aztertutako 12 produktutatik 9tan agertzen da neurri batez edo bestez ingelesa etiketetan. Euskara berriz, bi etiketetan besterik ez da agertzen. Beraz, **ingelesak euskarak baino askoz ere presentzia handiagoa du** etiketetan nahiz eta Euskal Herrian ere saltzen diren produktuak izan. Aztertutako **Hegoaldeko ardo ekoizle guztiek** erabiltzen dute neurri batez edo bestez **hizkuntza bat baino gehiago, Iparraldekoak aldiz, elebakarrak** dira, hau da, frantsesa besterik ez da ageri haien produktuetan. Webguneetan ere, frantsesa bakarrik azaltzen da.



Oro har, **webguneei** dagokienez, aztertutako 12 arandegietatik, bederatzik dute webgunea. Horietatik 7tan ageri da ingelesa, beste 7tan gaztelania, 5etan frantsesa, hirutan alemana eta bitan bakarrik euskara: **'Marques de Riscal'** (www.marquesderiscal.com) eta Aroaren (www.aroawines.com) webguneetan hain zuzen ere. Bietan informazio zabala euskaraz egon arren, atal batzuk euskal-

dundu gabe daude.

'Marques de Riscal' en webguneak zazpi hizkuntza eskaintzen du osotara. Euskara hautatuz gero, aurkibidea gaztelaniaz mantentzen da, gainerako hizkuntzetan ez bezala. Eduki aldetik ere, guztia ez da euskaraz eskaintzen, beraz, gerta liteke euskara hautatzean, webgunea erdaraz egoten jarraitzea. Aroak bost hizkuntza erabiltzen ditu bere webgunean. Ia eduki guztia eskaintzen du euskaraz, baina Sariak eta Berriak atalak esaterako, gazteleraz bakarrik eskaintzen ditu.



Irache ardandegiak ere, lau hizkuntza erabiltzen ditu webgunean, baina botilaren etiketan egiten duen bezala, ez du euskara hautatzen. **Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, webguneetan oinarrizko informazioa euskaraz eskaintzeko gastua benetan murrizta da**, beraz, zein da orduan arrazioa? Enpresaren erabakia da zenbat hizkuntzatan eskaini webgunea nahiz haien produktuak. Egiten ez badute, ez dutelako nahi da. Baina zergatik sartu txinera eta ez euskara? Txinan saltzeko? Eta ez al da Euskal Herrian ere saltzen? Bai, saltzen da, baina badirudi enpresek ez dutela euskara erabiltzearen onurarik ikusten. Bidezkoa al da euskal herritarrentzat, haientzat ekoiztutako bertako produktuak erdaraz bakarrik egotea? Enpresaren esku utzi behar al da erabaki hau?

**Zergatik sartu txinera eta ez euskara?
Txinan saltzeko?
Eta ez al da Euskal Herrian ere saltzen?**

Enpresek ez dute ez Hegoaldean ezta Iparraldean ere euskaraz etiketatzeraz derrigortzen dituen inolako arautegirik eta ondorioz, salbuespenak salbuespen, euska-

raren presentzia hain gurea den produktu honetan hutsaren hurrengoa da. Euskararen erabilpena ez da pertsonen arteko komunikazioa bakarrik, etiketen oinarritzko informazioa irakurtzea ere, euskara erabiltzeko beste era bat da. Eta hori gaur egun, ezinezkoa da kasu gehienetan, **euskaldunak ez du euskara erabiltzeko aukerarik nahita ere.**

Komenigarria litzateke, beraz, kontsumitzaile euskaldunon hizkuntza-eskubideak arau bidez babestea horretarako lege edo dekretua sortuz. Hizkuntza-eskubideen urraketa sistematiko hau ez da borondatearen baitan konpondu behar den zerbait, enpresa ekoizleek legez errespetatu beharko litzukete aitortzen zaizkigun eskubideok.

Kataluniari begira. Katalanen kasua bestelakoa da

Komenigarria litzateke kontsumitzaile euskaldunon hizkuntza-eskubideak arau bidez babestea horretarako legea sortuz.

eta bertan bai aurki daitezkeela katalana nagusi duten ardo etiketak, katalan hutsean dagoen Penedés izendapeneko 'Can Feixes Negre Selecció 2003' bezalakoa (www.canfeixes.com).



Ardoz-ardo

Nafarroako izendapena duten ardandegiak:

Aroaren 'Deierri 2004' ardoaren etiketan euskara ageri da, gaztelania eta ingelesarekin batera. Gaztelara da nagusi. Webgunea (www.aroawines.com) bost hizkuntzatan eskaintzen du, euskara barne.

Artadi taldeko **Artazuren 'Santa Cruz de Artazu'** ardoaren etiketan 9 hizkuntza ageri dira, euskara ez dago haien artean. Eraikitzen ari diren webgunea ere gaztelara hutsean dago (www.artadi.com).

Chiviteren 'Gran Feudo Reserva 2001' ardoaren eti-

keta gaztelaraz dago nagusiki, nahiz eta sulfitoen inguruko informazioa ingelesez eta frantsesez eskaini. Webgunea (www.bodegainurrieta.com) ere ingelesez eta gaztelaraz dago, euskara ez da inon ageri.

Inurrietaren 'Inurrieta 2004 Norte' eta Ochoaren 'Tempranillo' etiketak gaztelaraz eta ingelesez aurki ditzakegu, webguneak bezalaxe (www.bodegainurrieta.com) eta (www.bodegasocha.com).

Iracheren 'Gran Irache Crianza 2004' etiketa, webgunea (www.irache.com) bezala, lau hizkuntzatan dago, euskara kanpo gelditzen delarik.

Errioxako izendapena duten ardanadegiak:

Marques de Riscalen 'Reserva 2003'ren etiketan hiru hizkuntza ageri dira, euskara ez dago haien artean. Webgunean (www.marquesderiscal.com) berriz, 7 hizkuntza daude eta hauetatik bat da euskara, eduki osoa hizkuntza horretan ez dagoen arren.

Remelluriren 'Reserva 2002' etiketa eta webgunea (www.remelluri.com) bi hizkuntzatan agertzen dira: gaztelania eta ingelesa.

Irulegiko izendapena duten ardanadegiak:

Iruleguyren 'Domaine de Mignaberry'ren etiketan euskara ageri da, nahiz eta frantsesa nabarmenagoa izan. Webgunea (www.cave-iruleguy.com) ordea, frantses hutsean dago.



Azterketako emaitzarik onenak lortutako ardoak: Iruleguy Domaine de Mignaberry eta Aroaren Deierri.

Branaren 'Iargi', Etxegarayren 'Domaine' eta Arretxearen 2005eko ardoen etiketak frantses hutsean daude, Branaren (www.brana.fr) webgunea bezala. Beste biek ez dute webgunerik.

Kalitatea, **elkarlana**, balio erantsia, **erantzukizun soziala**



Ziurtagiriaren Elkartek abian jarri du komunikazio kanpaina. Bai Euskarari Ziurtagiriaren ezaugarriak gizarteratu ditu: kalitatea, elkarlana, balio erantsia eta erantzukizun soziala.

Kalitatea.

Ziurtagiriaren bitartez 7 urte hauetan lortutako esperientzia handia izan da, prozesu dinamikoa, parte hartzailea eta planifikatua eraman da aurrera. Jasotako ekarpenen bitartez, etengabe aberastu eta hobetu da. Akreditatzeko sistema aitzindaria izan da lan munduaren euskalduntzean, sorreratik, egoera berrietara egokitzen jakin duena.

Elkarlana. 2000. urtean Kontseiluaren ekimenez sortu zen Bai Euskarari Ziurtagiria. Aurtengo ekainean, Ziurtagiriaren Elkarteen bidez proiektua beste entitate batzuekin konpartitu da. Horren bidez, proiektua indartu, hobetu eta hedatzeko pausoa eman da, gizartearen aurrean erreferentzialtasuna izango duen egitura eratuz eta sendotuz.

Ziurtagiriaren Elkartea hiru bazkide motak osatzen dute: bazkide babesleak (Kontseiluko kideak), bazkide erabiltzaileak (Ziurtagiria duten entitateak) eta bazkide laguntzaileak (elkarlanean aritu nahi duten gainerako entitateak).

Balio erantsia. Bai Euskarari Ziurtagiria duten 1500 enpresa, saltoki eta bestelako entitateek euskararen balio erantsia dute. Bestelako enpresekin lehiatzeko plus bat dute: euskara. Euskara aintzat hartzen du bezero euskaldunak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez identifikatzen ditu.

Erantzukizun soziala. Euskal Herriko 1500 enpresek kontuan hartu dute gizartearekin duten erantzukizuna. Horretarako, neurriak hartzen hasi dira kalitatezko produktak eta zerbitzuak eskaintzeko. Hau da, euskarak ematen dien balio erantsiaz jabetzen ari dira.

Hau dela eta, Ziurtagiriaren Elkartek komunikazio kanpaina jarri du abian urratsik eman ez dutenei euskarak egin ahal dien ekarpena azaltzeko: erantzukizun soziala, balio erantsia, zerbitzuaren kalitatea, etab. Ziurtagiria lortzen dutenek, euren jardueretan euskara txertatuta, kudeaketari plus baliotsua eransten diote eta gizartearekin erantzukizunez jokatzeko dute.

Kanpaina honetan eskertzekoa izan da komunikabideen laguntza. Horiei guztiei: Eskerrik asko!

EITB, Berria, Metro Bilbao, Diario Vasco, Diario de Noticias de Navarra, El Mundo País Vasco, Diario de Noticias de Gipuzkoa, Diario de Noticias de Álava, Herri Irratia, Correo, Onda Cero, Cadena SER Euskadi, Deia, Localia Euskadi, Lea Artibaiko



Hitza, Oarsoaldeko Hitza, Busturialdeko Hitza, Irutxuloko Hitza, Urola-Kostako Hitza, Goierriko Hitza, Tolosaldeko Hitza, Argia, Canal Euskadi, Canal Gasteiz, Durango TB, Teledonosti, Radio Donosti, Tele Donostia, Info 7, Bizkaia Irratia, Los 40, Tele Bilbao, Tele Vitoria, Tele Donostia, Donostia-Tolosa Trantziaren Konpainia, Estrategia empresarial, Urola Telebista, Interbus, Zarautz Telebista, Herribus, Goierri TB, Goiena, Jaitxiki Telebista, Kitto, Aizu!, UK TB, Mondraberri, La Gaceta de los Negocios, Gestion 2-17, Aizu, Gaztenews, Txaparro, Xirika, Eta kitto!, Pil Pilean, Geu aldizkaria, Danbolin, Basauri Hoy, Txintxarri aldizkaria, Euskonews, UK Digitala eta Ttakun.

Nafarroako herriak eredu Bai Euskarari Ziurtagiriarekin



Sakanako 69 eragile Bai Euskarari Ziurtagiriarekin

Nafarroako **350** enpresa, saltoki eta era guztietako entitateek lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Eredugarria da nafarren erantzukizun soziala euskararekin. Azken egunotan Ziurtagiriaren Elkarteak hainbat banaketa ekitaldi egin ditu herrialdean.

Sakanan 13 eragilek eskuratu dute lehenengo aldiz Bai Euskarari Ziurtagiria eta beste **bik maila** igotzea lortu dute. Guztira, Sakanako **69 eragilek** jaso dute gaurkoan Bai Euskarari Ziurtagiria. “Ez dugu inongo zalantzarik proiektu honek aurrera egingo duela Sakanan, bere bilakaera geldiezina baita”, adierazi dute ordezkariak.

Tafallan ere **22 saltoki, enpresa eta bestelako entitatek** lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Horietatik, 2 ziurtagiridun berriak dira, udalak merkataritza euskalduntzeko planetik lorturikoak hain zuzen ere. Izan ere, Tafallako udalak merkataritza euskalduntzeko plana jarri du martxan.

Maiorga Ramirez, Tafallako euskara zinegotzia, Ziurtagiria ematen eragile bati



Barañainen ere **19** saltoki, enpresa eta bestelako entitatek eskuratu dute Ziurtagiria. Horietatik, 5 eragile proiektura gehitu berri dira, hau da, % 25eko hazkundea baino handiagoa izan du Ziurtagiriak Barañainen. **Bai Euskarari Ziurtagiria** **martxa onean aurrera doa Barañainen.**

Euskal Herrian barrena...

Nafarroa ez da ekitaldiak ospatu diren lurralde bakarra eta Euskal Herrian barrena ere izan da Ziurtagiriaren Elkarteak. Esate baterako, Zestoako 25 eragilek ere Ziurtagiria eskuratu dute.

Ekitaldiez gain, herri ugari euren gain hartu dute egitasmoari bultzada emateko ardura, esate baterako, Sakanan eta Seguran elkarteek zuzendutako aurkezpenak egin dituzte eta Amurrio, Azkoitia eta Seguran lankidetzak hitzarmenak sinatu dira udalekin.



Iparraldean ere gogotsu aritu dira. Horren froga da Azkain eta Ezpeletan ospatutako ‘Euskaraz Mintza Asteak’.



Ezkerreko argazkian Asier Aranbarri, Azkoitiko alkatea, Xabier Mendigurenekin hitzarmena sinatzen eta goikoan, Ezpeletako Mintza Astearen aurkezpena: ezkerretik hasita, Laida Mujika, Gracie Florence, Ezpeletako auzapeza eta Jarraipen taldeko Kattin Iturralde.

www.blogari.net/BaiEuskarari

Kontseiluaren helbideak

Martzelo Zelaieta 75
U3 eraikina, 13. bul.
31014 Iruñea
Tel: 948 384 680 / Fax: 948 123 743

12 Galuperie Kaia
64100 Baiona
Tel./Fax.: 945 179280

Pedro Asua kalea, 27-behea
01008, Gasteiz
Tel./Fax.: 945 215196

Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen azterketa



Bilbao eta Haranburu txostenaren aurkezpenean

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak txosten berezitua aurkeztu du: 'Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak Euskal Herrian'. "Araudia aztertu dugu eta gure hizkuntza-eskubideak ez direla bermatzen ondorioztatu dugu, urratzea merkea dela", adierazi du Behatokiko zuzendariak, Paul Bilbaok. Kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunoi bizi garen lurraldearen arabera hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkigun arren, horien urraketak Euskal Herri osoan gertatzen dira Behatokiaren arabera.

Europako Kontseiluko, Europako Batasuneko, Espainiako nahiz Frantziako eta autonomi erkidegoetakoetako araudia aztertu du Behatokiak:

Europako Batasunak oztupoak besterik ez dizkie jartzen gure hizkuntza bezalakoei. '2000/13 CE' artazarauaren arabera, hizkuntza ofizialen erabilera besterik ezin derri gor daitekeela ezartzen da, eta euskara Europan ez da hizkuntza ofiziala. Zuzenbide komunitarioa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den honetan, Paul Bilbaok azpimarratu du ezinbestekoa dela geure hizkuntzak besteen estatus bera izatea.

Frantziako Estatuak legezko hizkuntza bakarraren derri gortasuna besterik ez du ezartzen. Horrela, 'Code de la Consommation' delakoak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak arautzen ditu, eta "ohikoa den moduan" frantsesa ez beste hizkuntzaren erabilerarik ez da jasotzen.

Espainiako Estatuak 1984an onartu zuen

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Babeserako Lege Orokorra, eta hizkuntza-eskubideak ez zituen jaso ere egin. Ondoren, zenbait dekretu argitaratu ditu etiketen inguruan gaztelaniaren erabilera derrigortzeko.

Nafarroan iazko uztailen onartutako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen lege berriak, '7/2006 Legeak', "ikusezin bihurtu zituen nafar euskaldunak". Are gehiago, legearen beraren zabalpenerako liburuxkak gaztelania hutsean argitaratu zituen, 'Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren 13.2.a artikulua'ren kontra egin arren.

EAEn 2003an onartu zen egun indarrean dagoen 'Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua'. Hizkuntza-eskubideei dagokienez, '6/2003 Legea'k berrikuntza garrantzitsu eta oinarritzkoa ekarri zuen, lehen aldiz, aitortu zitzaizkigulako hizkuntza-eskubideak. Tamalez, legeak ez du eperik finkatzen eta edukiak garatzea aurreikusten bada ere, "oraindik ez da hori gertatu", jakinarazi dute.

NBEko gutxiengoen aferetarako aditu batekin



Paul Bilbao eta Ione Josié UNESCOn.

Behatokiko ordezkariak Pariseko UNESCOn bildu ziren Nazio Batuetako Gutxiengoen aferetako aditua den Gay McDougall andrearekin. Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendariak, Paul Bilbaok, Ipar Euskal Herriko euskararen egoeraren berri eman zion adituari.

McDougall bisita egiten ari da Frantziako Estatuan gutxiengoen aferari buruzko landa-azterketa burutzeko. Izan ere, Nazio Batuetako ordezkariak 2006an txostena prestatu zuen gutxiengoen egoeraren inguruan eta bertan hainbat elementu kezagarri agertu zituen. Batetik, adituaren arabera, gutxiengoen eskubideen aldeko jarrera ez da mugatzen diskriminazioaren aurkako neurriak harturik, norberaren

identitatea sustatzeko eta iraunarazteko aferei erantzun behar die. Horren harira, Behatokiko zuzendariak gogoraz dio Frantziako Estatuak oharra egin zuela Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikulua bere lurraldean ez betetzeko; izan ere, haren ustez Estatuan ez dago gutxiengorik.

Bai Euskarari Laguntzaile egiteko aukera Internetez

www.kontseilua.org web gunean edo www.kutxa.net atariko "Emariak" atalean

Bai Euskarari Laguntzaile izateak murriztapen interesgarriak eskaintzen ditu PFEZaren aitortzearen bidez

Kontseiluaren 10. urteurrena



Kontseiluak 10 urte beteko ditu aurtengo abenduan. Urteurrena ospatzeko abendua-ren 19an Bilboko Euskaldunean ekitaldia antolatu dute eta bertan, Kontseiluak 10 urte hauetan egindakoak laburbilduko dituzte ekoiztu-tako ikus entzunezkoa aurkeztuz. Dokumental horretan Kontseiluarekin bat lan egin duten hainbat norbanakoen adierazpenak jaso dira. Pedro Miguel Etxenike, Juan Mari Torrealdei, Laura Mintegi eta Iñaki Zabaletaren iritziak jaso dituzte, besteak beste.

Era berean, Euskal Herriko eragileen atxikimendua biltzea helburu duen **'Euskaraz bai' adierazpena** aurkeztuko dute Kontseiluko ordezkariak.



Erakunde baten bizitzan, euskararen normalizazioa helburu duen erakunde baten bizitzan hain zuzen ere, 10 urte ez dira gehiegi, ezta gutxiegi ere. Hamar urtean, Kontseiluak aurrerapauso asko eman ditu. Hausnarketa sakon baten ondorioz sortu zen Kontseilua, zehazkiago, 'Euskararen Unibertsoan' jardunaldiaren testuinguruan. Ondoren, gizarte osoaren babesa jaso zuen: Euskal Herriko 5 futbol estadio bete zituen 'Bai euskarari' kanpainaren bidez. Geroztik,

herriz herri zabaldu du euskararen aldeko mezua. Horri esker, gaur egun 121 herrita egiten du lan: Tafallan, Amurrión, Uztaritzen, Basaurin eta Donostian dihardu, besteak beste.



Estrategikoak diren sektoreetan eragitea da Kontseiluaren helburua. Lan mundua euskalduntzeko aitzindari dugun Bai Euskarari Ziurtagiria jarri zuen martxan. Bestetik, hizkuntza-eskubideak babesteko bidea egingo zuen Hizkuntz Eskubideen Behatokia sortu zuen. Behatokiak herritarren ekarpenekin zuzenean lan egiten du, abian jarritako 'euskararen telefonoa'ren bidez.



Euskal Tonbola sariz gainezka!



Euskal Tonbolaren 3. edizioa Nafarroa, Bizkaia eta Iparralde aldean ari da eta dagoeneko, milaka sari utzi ditu bertako tabernetan. Esate baterako, hiru Renault Twingo banatu ditu dagoeneko, uda ostean bertan merkatura ateratako automobila alegia. Laster Arabara egingo du salto Euskal Tonbolak eta oraindik badaude kotxe eta sari gehiago zozketatzeko! Besteak beste, autojiro hegaldiak, 8 pertsonarentzako Pirinioetan asteburu-pasak, Home Cinemak, DVD eramangarriak eta 42 hazbeteko telebistak!